

Euskara eskolak doan NUPen



NUPEKO E. T.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE Publikoko ikasleek, langileek eta haien senideek unibertsitatean bertan euskara ikasteko aukera izango dute aurten ere, bertako ikasleak bihurtuko baitira irakasle.

Aurtengoa ez da lehenengo ikasurtea izango, 2013an hasi zen NUPEko euskara taldea eskolak ematen. Unibertsitateko ikasleak irakasle bihurtzen dira eta ez dituzte eskolak kobratzen. Euskararen eza-gutza eta erabilera mailak kezkatuta jarri zuten egitasmoa martxan. Eskola ordu arruntez gain mintzapraktikarako aukera ere izango da. Zero eta lehen mailak eskainiko dituzte.

Bertako produktuak euskararen alde

EPERRA IKASTOLAK, urtero bezala, Zuberoako ikastolen alde dirua biltzeko bertako produktuen bi otarre jarriko ditu salgai (Ikaskoli webgunean). Irati otarreak 51 euro balio ditu eta Ahüski otarreak 39. Zuberoako ardi gazta, ezta eta patea dira saskian, besteak beste. Ikastolaren gastuen %5 estaltzea espero dute. Gurasoek funtzionamenduaren %30 finantzatzen dute, administrazioak %20, eta gizarte eragileen bidez erdia lortzen dute.

Nafarroako hegoaldean euskara diruz laguntzeko ekimena ere urriaren 21ean hasiko da. Ikastolen Elkar-teak, AEK-k, Zazpiak Batek eta Sortzenek abiatuko dute eta jasotako diruaren %25 Nafarroako eremu ez euskalduneko egitasmoetarako baliatuko da. Saskiak 50 euro balioko ditu eta Nafarroako produktuez osatutakoa izango da. Iaz 300.000 euro lortu zituzten euskalgintzarako.

Bahea

Kepa Altonagak Berrian esanak berak idatzitako *Back to Leizarraga* liburua ahotan hartuta:

“Prosa da nire kezka. Zuk prosa horretarako tresna egokirik ez baduzu... igual errakitiko asko esatea izan daiteke kasu batzuetan, baina prosa horrekin eremu oso mugatua edukiko duzu. Liburuan esaten dut euskara errazaren urmaelean plisti-plasta gabiltzala askotan. Gauza batzuetara iritsiko gara, baina beste askotan gure posibilitateetatik kanpo geldituko gara, ez bakarrik zehaztasun faltaz, baita sotiltasun, ñabardura eta enfasi faltaz ere. Ingelesezt, badira proposito ezberdineko hizkuntzak: hegaldi domestikoak egitekoak eta hegaldi transozeanikoak egitekoak. Hegaldi domestikoetarako, daukagunarekin nahikoa da behar bada, baina altuera pixkatxo bat hartu nahi duzunean, normalean erabiltzen dugun eredia eskas gelditzen da, ñabarduretarako aukerarik gabe. Ahalegin horretan ibili den edonor konturatzen da horretaz”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Volkswagenen iruzurra kapitalismoak ekarri du

VW AUTOMOBILEN enpresa alemaniar erraldoiak 11 milioi kotxeren gas kutsagarrien isuriekin egindako iruzurrak mundu osoa harri eta zur utzi du. 50.000 milioi euroko kostua izan dezake, baina komeni da iruzur horren funtsera joatea, erroitik azaleratu ahal izateko. Azken batean, kapitalismo basatiaren praktikak eraman dute horretara. Modu berean, ondo legoke izango dituen ondorioak ere aztertzea, kapitalismoak sortutako egoera horri, beti bezala, langileak egin beharko baitio aurre.

Hala da. Multinazional alemaniarrek horrela jardun badu, izan da bertako exekutiboek diru-kontuen emaitza ahalik eta gehien loditzeko grina dutelako, beste multinazional gehienetan bezalaxe. Zigorrik ez zutela izango uste zuten, eta Europar Batasunaren ingurumen arau guztiak hautsi dituzte, kontsumitzaileei iseka eginez. Etekinak zenbat eta gehiago izan, akzionistek dibidendu gehiago jasoko dituzte eta exekutibo horiek sarituko dituzte bonu eta fortuna handiekin. Kapitalismoaren gidaliburuko praktikak dira horiek.

Praktika mafioso horien ondorioak produktuak

egiten diren tokietako langileek ordaintzen dituzte. VWeko presidentek jadanik abisua eman du: aurreikusitako inbertsio guztiak berraztertu eta “behar-beharrezkoak” ez direnak bertan behera utzi edo atzeratuko dituzte. Esperantzari zirrikiturik ez uzteko, honakoa ere esan du Alemaniako egoitza nagusian zeuden 20.000 langileen aurrean: “Hau mingarria izango da”. Noski, mingarria langile alemaniarrentzat, baita poloniar, espainiar, katalan eta euskaldunentzat ere, Iruñeko Landabenen lanean aritzen direnentzat alegia. Espainiako Estatuan 4.300 milioi euroko inbertsioa zegoen aurreikusita –horietako 3.500 Seat markako lantegian–; bada ikusi beharko da zertan geratzen diren eta zer ondorio dauden Nafarroan.

Halako ezaugarriak dituen iruzur eta maulari alarma guztiak piztu beharko lituzke Europar Batasunean –zerbait esan beharko du ingurumen ikuskaritzari dagokionez–, Alemaniako Gobernuan eta VW multinazionalean bertan. Kapitalismoa, ordea, boterea da.

Juan Mari Arregi